

DONOSTIASAN  
SEBASTIANDONOSTIA  
san Sebastián  
TURISMO & CONVENTION BUREAU

2012

Abuztua 2012

Uztaila 2012

Ekaina 2012

Maiatza 2012

Apirila 2012

Martxoa 2012

Otsaila 2012

Harpidetu gure buletinera eta jaso zure e-postan azkenengo berriak.

Izena

Posta elektronikoa

Harpidetu

[San Sebastián Turismoaren web gunea](#)

[San Sebastián Turismo & Convention Bureau web gunea](#)

Kaixo

ABUZTUA 2012

Donostia Turismoaren *Newsletter*-a da hau. Honen bidez, Donostiarekin eta bertako baliabideekin, zerbitzuekin eta azpiegiturekin erlazionatutako egitasmoen eta berrien inguruan informatuta mantenduko zaitugu.

DONOSTIA TURISMOAKO BERRIAK



### Zinemaldiko Irtenalditxoak

"Zinemaldiko irtenalditxoak" izeneko pakete turistiko berritzaileak hiria bisitatu eta ezagutu nahi duen pertsona orori zuzentzen zaizkie, Nazioarteko Zinemaldia hirian bertan ospatzen dela baliatuz. Irtenalditxoak salgai daude jada Donostia Turismoko Erreserba Zentroan, eta paketeek honako hauek barne hartzen dituzte: bi gauetarako ostatua + Zinemaldirako sarrerak + "Donostia Zinema Hiria" bisita gidatua + hiriko informazio turistikoa jasotzen duen poltsa.



### Bisita gidatu berria: "Euskararen Donostia"

Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak eta Maramara enpresak, bisita gidatu berri hauen bidez, euskararen historia ezagutzeko aukera emango diete turistei. Donostia Turismoak hainbat ardatz estrategikoren gainean askotariko bisita gidatuak antolatzen ditu, eta bisita gidatu berri honen sustapenean ere parte hartu du. Beste ikuspegi bat eskainiko dio turistari: euskararena.



### Bisitarien marka urteko lehen seihilekoan

Urteko lehen seihilekoan Donostia Turismoko Bulegoan sartu diren bisitarien kopurua % 22 handitu da. Urtarriletik ekainera, 88.439 bisitari hurbildu dira gure bulegoetara informazioa eskatu eta gure produktuak erostera.



### Gida Gastronomiko berria argitaratu da

Donostia Turismok Donostiako Gida Gastronomiko berria kaleratu berri du. Gida berri honetan, kategoria desberdinen arabera sailkatu dituzte jatetxeak (Michelin izarrak dituzten jatetxeak, pintxoak, jatetxe tradizionalak, nazioarteko sukaldaritza, sagardotegiak, eta abar), eta, gainera, hiriko planoan kokatu dituzte. Gida osatu honek, halaber, jarduera, saltoki eta elkarte gastronomikoei buruzko informazioa jasotzen du.

DONOSTIA TURISMOAKO BAZKIDEEN BERRIAK



### Aquarium bikaina

Donostiako Aquariumak TripAdvisor web-orri ospetsuak, bidaien inguruko munduko web-orri handienak eta mundu osoan ezagunak, urtero ematen duen Bikaintasun Ziurtagiria eskuratu du. Diplomak jasotzen duen bezala, ziurtagiriak Donostiako Aquariumaren “goi mailako kalitatea” adierazten du; laster, gainera, 15 milioi bisitari izatera iritsiko da. Hain zuzen, bidaiariak, web-orrian egindako iruzkin eta puntuazioen bidez, 5 puntutik 4 puntuko balorazio bikaina eman diote Aquariumari.

© Diseinua eta garapena:  
Eurosíntesis



### Sagardoa eta itsasoa

“Sagardoa eta itsasoa” izena du “Sagardoaren Lurraldeak” abian jarri duen esperientzia turistiko berria. Berriki sortutako ekimenaren xedea sagardoaren kulturari lotutako turismoa antolatu eta sustatzea da. “Sagardoa eta itsasoa” esperientzia turistiko berriak, modu dinamikoan eta parte hartzearen bidez, iragan mendeetan sagardoak itsasoko espedizioetan izandako garrantzia ezagutzeko aukera ematen dio bisitariari. Izan ere, garai hartan itsasoan beldur handiena eragiten zuen gaixotasunetako baten, eskorbutoarenean, aurkako antidoto onena omen zen. Esperientzia honen barruan sartzen dira Sagardoaren Museora bisita, sagardotegi batean bazkaria eta ibilaldia kostaldean barrena.



### Su artifizialak ikusteko palko onena

Urtero bezala, Donostiako Aste Nagusian barrena, abuztuaren 11tik 18ra, hiria festaz jantziko da eta jaietako ekitaldi ugari izango dira. Besteak beste, Su Artifizialen Nazioarteko 48. Lehiaketa nabarmentzen da, ezinbesteko hitzordua baita bisitari zein bertakoentzat. Santa Klara uharterko txalupa zerbitzuak gaueko zerbitzu berezia eskainiko du, gau donostiarraren ikuskizun piroteknikoa ikusi ahal izateko: ibilaldia Donostiako badian barrena, su artifizialak ikuskizun direla. Ikuskizun ezin hobea!



### Fan! San Martin erosketa klub berria

Donostiako erdialdeko azokak Fan! San Martin ekimena jarri du martxan, hots, jada 1.000 bazkide dituen erosketa kluba. Klubeko kide izatearekin, klubaren postuetan deskontuak eskura daitezke, eta baita zozketetan eta jarduera interesgarrietan parte hartu ere, hala nola, ekainean hasitako azokako sukaldaritza tailerretan. Oso erraza da klubeko bazkide egitea eta, guztiz doakoa, gainera.

DONOSTIA AGERI DA...

**Gure hondartzei esker, Donostia, ranking batean berriro!**

**Donostia eta Basque Culinary Center, Vueling aldizkariaren azala**

**Donostia, Citybreak norako turistikoa Noruegan**